



SEGURAKO UDALA

SAN JOAN SUA

Aparteko beroaldian gaude. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailatik esan digutenez, hiru egunez jarraian alarma gorria ezarriko dela aurreikusten da, muturreko tenperatura altuengatik.

Egoera honek LABiren baliabideak martxan jartzea dakar.

Hau guztia dela eta, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, landa eremuetan San Joan gaueko surik ez egitea gomendatzen du. Udalon esku utzi du erabakia.

Hori horrela, egoera arriskutsua eta larria dela ikusita, erantzunkizunez jokatzea dagokigu. Landa eremuan eta baserri inguruetan, orokorrean Segura osoan, SAN JOAN SUA EGITEKO DEBEKUA ezarri dugu udaletik, behar ez den arriskurik hartu beharrik ez dago eta.

Arboladi ondoan egiten den herri-akelarrea, kontrolatutako su txiki batekin egingo da, sinbolikoa.

Erabakia ulertuko duzuelakoan,

Zentzuz joka dezagun!

Eskerrik asko,

Seguran, 2026ko ekainaren 22an

Izarra Urdalleta Iraola

Alkatea